


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**URBIETA 55****Egilea eta data: Manuel Echave, 1906****Deskribapena**

Izkinako eraikina. Behe oina eta bost goi oin ditu, gehi eraikuntza dataren ondorengo jasodura bat, 1935ekoa. Oin bakoitza eskaileraren ardatzetik abiatuta simetrikoki banatutako bi etxebizitzaz osatzen da. Etxebizitzek antzeko azalera dute. Horietako batek izkina du eta bigarrenak etxadi patioa partekatzen du. Fatxadak eraikuntza kalitateagatik nabarmentzen dira. Jasodurak eraikinaren jatorrizko silueta aldatu zuen. Eraikinaren basamentua nabarmentzen da. Behe oina eta lehen oina hartzen ditu, gainerakoarekiko tratamendu bereziaz. Era berean, soluzio berezi batez alakatik abiatzen den begiratokia nabarmentzen da. Eraikina bereizi egiten da zabalduerako eredu hedatueneratik, baeon uniformetasuna eta erritmoa alde batera uzteagatik; erlaitzeko modiloien aldaketan isla duen forma txandakatzea sartzeko.

Babes erregimena**1.- Babes erregimen orokorra:**

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baeon konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitektureko proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: behe oineko estaldurak; seigarren oineko jasodura; arrotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzeak:

* Behe oineko jatorrizko harlandua leheneratzea eta, zaharkituta egonez gero, haren orde, harlandu horrekin lotutako irudiari eustea ziurtatuko duten beste soluzio batzuk ezartzea (xáflak, etab.).

* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.